

Gizartea >

NATALIA RUBIO. ESPAINIAKO SEXUALITATEA ETA EZGAITASUNA ELKARTEKO PRESIDENTEA

«Ezgaitasunak dituztenek sexualitateaz gozatzea aldarrikatzen dute»

Hainbat ezgaitasun motatan sexualitatearen arreta, hezkuntza eta laguntza zein den ikertzen ari da Sexualitatea eta Ezgaitasuna elkarteak, gerora baliabideak eskaini ahal izateko.

2014-04-18 / Urtzi Urkizu

2010. urtean sortu zenetik da Espainiako Ezgaitasuna eta Sexualitatea elkarteak presidentea. Psikologoa, sexologoa eta pedagogo ere bada Natalia Rubio (Burgos, Espainia, 1976).

Ezgaitasunen bat duten pertsonen sexualitatea apenas hartu den kontuan orain gutxi arte. Zer lan egiten duzue zuen elkarteak?

Gaiaren inguruan estatuan dagoen elkarte bakarra da. Ezgaitasunaren alorrean, urte hauetan aurrerapen asko izan dira, dela lan arloan, dela kirolean. Baina arlo afektibo-emozionala utzita zegoen. Sexologiaren munduan, bestalde, profesionalak ez zieten erantzunik ematen kolektibo jakin batzuei, adibidez, behar bereziak eta ezgaitasunak dituztenei. Gabezia horiei erantzuteko sortu zen elkarteak, ikuspegi diziplinarteko batekin. Elkarrearen helburua da ezgaitasuna duten pertsonen arlo afektibo-sexualean laguntzea eta hezkuntza ematea. Arlo askotarikoak lantzen ditugu: prestakuntza, aholkularitza, terapiak — bakarkakoak, bikoteka, familiakoak—, argitalpenak eta ikerketak.

Gaiaren inguruko ikerketa bat egiten ari zarete. Zertan datza?

Ezgaitasunak dituzten pertsonen Espainiako elkartearekin elkarlanean ari gara ikerketa egiten. Argazki osatu bat egin nahi da jakiteko hainbat ezgaitasun motatan zein den sexualitatearen arreta, hezkuntza eta

laguntza. Horretarako, erreferentziazko zentro batzuk aztertu dira. Ikerketaren ondorioak jakinda erantzun nahi dugu, eta soslai askotariko pertsonentzako materialak eta baliabideak landu.

Osasun eta gizarte erakunde publikoek erreparatzen al diote gaiari?

Baikorrak izan nahi dugu. Asko dago egiteko, baina gero eta erakunde gehiago daude sexualitatearen gaiari heldu nahi diotenak. Urte askoan erabili izan den estrategia izan da beste alde batera begiratzea, eta sexualitatearen inguruko arazoak berez desagertzeko itxaropena izatea. Baina horrek ezin du funtzionatu. Ezgaitasuna duten pertsonak ez dira isilik gelditzen, eta alor horretaz gozatzeko eskubidea aldarrikatzen dute. Laguntza ere eskatzen dute. Erakunde publikoak prest badaude arreta pertsonalizatua emateko, ezin da alor bat ere bazterrean utzi. Sexualitateak presente egon behar du erakundeen erantzunetan.

Ezgaitasunen bat duen pertsona baten sexu hezkuntzan zeintzuk dira gakoak?

Ezgaitasun intelektuala duten pertsonak desabantailak dituzte, eta egoera ahul batean daude sexualitatearen prestakuntzan. Gabezia batzuk dituzte. Gainera, gizarteak ematen dituen ereduak maiz zurrunegiak dira, eta ezgaitasunak dituzten pertsonak ez dira sartzen gizon edo emakume izateko eredu horietan. Ezgaitasuna era batekoa ala bestekoa izan, garrantzitsua da haiek euren burua ezagutzea. Gizon edo emakume izatea zer den jakinda, euren burua hobeto onartuko dute. Horrela, bestearengana gerturatu eta sexualitatea era asegarri batean bizi ahalko dute. Ezgaitasunaren arabera, batzuek laguntza bereziagoak beharko dituzte.

Gizartean txertatuta dagoen sexualitatearen eredu zabaltzea ez al litzateke mesedegarria izango?

Bai, zalantzarik gabe. Gure lanaren parte da sexualitateaz dugun ideia irekitzea. Sexualitatea genitaletan zentratuta dagoela pentsatzea oker bat da. Sexualitateak gorputzekin eta zentzumenekin du zerikusia, eta sexualitateaz gozatzeko modu asko daude. Sexualitatea ez da bakarrik sexu harremanak eta koittoa. Sexualitatearen barne sartzen dira musuak, laztanak, besarkadak, begiradak eta elkarrekin lo egitea. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte daukagu gorputza, eta gure gorputzaz gozatzeko moduak ezberdinak dira adinaren arabera. Orgasmoaz baino plazeraz hitz egin behar da, eta une bakoitzaz gozatu behar dugu. Hori baliagarria da ezgaitasunen bat duten pertsonentzat, baina baita gainerakoentzat ere.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen familiek zer kezka izaten dituzte sexualitatearen inguruan?

Familia gehienek seme-alabei sexu hezkuntza emango zaiela entzuten dutenean uste dute genitalak erabiltzen irakatsiko zaiela, edo sexu harremanak izango dituztela. Horrek askotan beldurra, larritasuna eta arbuioa ekartzen die. Familiek hori desmitifikatzen dutenean, eta azaltzen zaienean gorputzak gidatzen eta errespetatzen erakutsiko zaiela, egoera aldatu egiten da. Neska eta mutilen arteko harremanak nola izan, eta harremanen arabera nahitasuna nola adierazi erakusten zaie. Beste pertsona batzuek egin ditzaketan abusuak eragotzi nahi dira, era berean, hezkuntzaren bidez. Familiak, hori jakitean, pozten dira, ez baitakite egoera asko nola maneiatu. Denek dute rol bat hezkuntza horretan: profesionalek, senideek eta ezgaitasuna duten pertsonak.

Garai batean, guraso askok ezgaitasundun semeak edo alabak antzutzen zituzten. Egun gertatzen al da?

Bai, gaur egun ere gertatzen da. Gurasoei, batzuetan, haurdunaldiaren arriskua sartzten zaie buruan, eta horregatik hartzen dute semeak edo alabak antzutzeko erabakia. Baina haurdunaldia dakarren sexu harremana da ezgaitasun intelektuala duten pertsonetan presentzia txikiena duena, sexualitatea bizitzeko beste modu bat baitute. Familien larritasuna arintzeko egin izan da kirurgia operazio asko, nahiz eta haurdun gelditzeko arriskurik ez egon. Informazio faltak sorrarazten ditu halakoak, nahiz eta intentzio onenarekin aritu.

berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

www.euskalherriko
plaza.com 

Mauka **BADOK**

hitza 

IRRIEN LABUNAK 
www.irrienlabunak.com

Hamaika
telebista

iragarkilaburrak.com